

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ!

Egunotan ugari izan dira prebtsan euskararen egoera eta trataerari buruzko idatziak, politikari ospetsuren baten deklarazioak direla eta, edo komunikabideotan euskarari eskaintzen diogun neurri urriak direla eta. Idazki hauk «Euskal Herrian Euskaraz» erakundeak ziren gehienbat. Mau dela eta, datorren larunbatean, Donostian, Euskararen alde antolatatu duen manifestazioa ere kontutan harturik, Punto y Horakook, Txillardegi, Endika de Migel eta Jon Tapia aipatutako erakundeongana hurbildu gara. Zazpi hilabetetako historia labor honek erakutsi dien zer salatubeharrak dakartzkigu orrialdeotara

P. y H.: Egin dezagun Euskal Herrian Euskaraz erakundearen historia bat.

- Orain zazpi hilabete, etorria zela pentsatu genuen momentua euskararen alde zerbait egiteko. Baina ez teknika mailan, horretarako badago Euskaltzaindia; ikastola mailarako ere badago federazioa, etabar. Guk pentsatu genuen «gauzak eskatzeko» zerbait behar genuela Euskarari dagozkion eskubideak eskatzeko, eta horretarako organizazio bat eratzea pentsatu genuen. Erakunde horrek politika guztitik at egon behar zukeen. Gurearteko askoren posizio politikoak, batzuenak behintzat, oso ezagunak dira, baina horrek ez du esan nahi mugimendu honetan sartzeko holakoa behar denik izan. Mugimendu honek, beraz, ez du definizio politikorik. Euskara gabe Euskadi ez dela ezer uste dugu, edota munstro bat besterik ez. Behar diren puntuak lortuarate burruka egin eta eskatu, ez dugu besterik egingo. Halere, soluzioak ez ditugu ematen, laguntzeko prest gaude, baina ez da hori gure eginkizuna...

P. y H.: Norbaitek esan lezake, aipatu komunikabide hoietan dabiltzanak batez ere, kritikatzeko erazagoa dela soluziobideak eskatzea baino, eta zuek hain zuzen, soluziorik ez duzuela emango esan duzue...

- Ez, guk ez dugu soluziorik emango EHE erakunde bezala, baina gutariko bakoitza euskara arloan ari gara lanean beste erakunde batzutan, euskarazko eskoletan etabar. Bestalde, talde zirikatzaila bezala, guk, Lemoizko zentralaren aurka-koak bezala, ez dugu soluziorik emango. Antinuklearrek Lemoiz bota behar dela diote, herriarentzat kaltegarri delako, beste irtenbide eta planik aurkeztu gabe.

P. y H.: Zerk bultzatu zuen EHE erakundearen sorrera?

EUSKARAREN ALDE



- Badira zenbait urte Franco hil zenez geroztik, eta hemen telebista, kasu batez, guztiz beharrezko den tresna dela, oraingoz minutu bat ere ez dugu euskal telebistarik. Asmoak izan dira, promesak pilla izan dira, baina hemen ez dago ezer. Franco zela esaten zen hemen etsairik handiena. Orain hil da Franco, baina gauzak berdin daude.

Gauzarik errexenak ere ez dira aldatu. Bidetako letreroak, kasu batez, hor daude aldatu gabe. Alderdi abertzaleetan bertan (hau askotan esaten bada ere) buruek ez dakite euskararik, ez ikasteko asmorik ere. Biltzarrak eta, alderdiotan, erdaraz

egiten dira. Bestalde, hemen deneterako egin dira manifestazioak, amnistiaren alde, Lemoizen aurka... eta oso ondo dago, baina euskararen alde ez da batere egin; orain urte batzuk «24 ordu euskaraz» eta halakoak, geroztik hemen ez da manifestaziorik egin.

Gehiago, konturatzen bagara, alderdi politikoez gero eta indar gutxiago dute, hoinen zai bagoaude... hoik beti daude boto bila, beraz, ezin dugu euskararen arazoa aurkeztu, gu %27 bakarrik baikara, eta %27 horretatik ikusi behar zeintzuk diren kandidateak etabar...

Alderdiek planteatu ere ez dute egin euskararen arazoa. Hori botuak galtzea izango litzake eta. Euskararen arazoa planteatzea, «hori ez da politikoa» esaten dute.

Esate baterako, lehen euskara potentziatzeko biderik ez zegoenean, bide legalik behintzat, denak apuntatzen ziren euskararen alde; orain, alderdiek, promozionatzeko posibilitateak dituztenean, politika beste bide batzutan desarrollatzeko aukera dutenez, ahaztu egin dute euskararen arazoa.

P. y H.: Alderdi politikoak gogor salatzen dituzue...

- Noski. Salatu behar, teorion euskararen alde eta errealitatean kontra baitaude. Argi geratu beharko litzateke edozela ere, politika arloan gu ez gara inorekin sartzen. Orain, alderdiren batek edo, gure linea, edo euskara zuzenki erasotzen badu, orduan guk erantzun egingo diogu.

P. y H.: Nor gehiago salatu beharko litzake?

- Komunikabideen portaera azaldu nahi genuke.

Lehenengo egunean kasu batez, prentsurreko bat antolatatu genuen eta han lau ba-

El próximo sábado día 19 de abril tendrá lugar en el Boulevard donostiarra una manifestación convocada por la organización Euskal Herrian Euskaraz. Esta iniciativa es una de las más famosas llevadas a cabo en favor del euskara desde su presentación en noviembre del pasado año en la Feria del Libro Vasco de Durango.

Tal y como manifestaron sus representantes a nuestra revista, Euskal Herrian Euskaraz es una organización meramente reivindicativa del euskara donde confluye gente de

todas las tendencias políticas bajo el único planteamiento de la defensa del euskara. Hacen especial hincapié en su carácter reivindicativo, a nivel popular, diferenciándose de otros organismos tales como Euskaltzaindia, las ikastolas y la Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea, de carácter más organizativo y de canalización de las distintas disciplinas para la enseñanza y desarrollo del euskara.

Califican la situación del euskara en Euskadi como claramente diglósica. El euskara, afirman, no es una lengua social,

Visto el acuerdo adoptado por el Ayuntamiento de Rentería en la Sesión de la Comisión Municipal Permanente celebrada el día 2 de noviembre de 1979.

RESULTANDO: que en dichas bases se establece como requisito excluyente el conocimiento del Euskara.

CONSIDERANDO: Que conforme a la Constitución Española, art. 3: "el castellano es la lengua oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de su conocimiento y el derecho a usarla. Y conforme al art. 14 "los españoles son iguales ante la Ley, sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social."

CONSIDERANDO: Que conforme al art. 6, nº 3: del Estatuto de Autonomía Vasco aprobado por referéndum el 25 de octubre de 1979: "Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua"

CONSIDERANDO: Que por otra parte, y a mayor abundamiento el Decreto de 6 de octubre de 1973 y art. 33 establece los requisitos previos para tener acceso a la Administración Local, y estos requisitos se reducen a condiciones mínimas para el normal funcionamiento.



resuelve el resto de la problemática...» eta hori ez da egia.

Gure herrian ez dago euskararen baxterre beharrik, erdaraz oso ondo moldatzen gara... Juduak, behin eta berriz esan dugunez, elkarren artean ulertzeko behar zuten hizkuntza bat, bakoitzak bere hizkuntzan hitzegiten baitzuen, grekoz, alemanieraz, espáñolez... orduan posible zuten hizkuntza bat ezerezetik hartu eta ikastea, baina hemengo kasua ez da hori, hemen oso ondo moldatzen gara erdaraz. Beraz hemen ez du balio «primero la independencia y después una buena gramática» argumentuak. Lehenengo eta behin hori esaten duenak ez daki euskararik, eta erdaraz ari da. Gainera, hizkuntzen arazoa, arazo sozioinguistikoa da, ez borondate arazoa; eta hau salatu egin behar da. Ikastoletan, kasu batez, euskaraz egiten da, baina ikastolatik irten eta espáñolez hasten dira. Hori edozela ere, ez da harri-garria.

Lehenengo egun batetan, Mackey linguista quebecdarrak, eskema baten bidez azaldu zigun: zirkulo txiki batetan ikastola eta zirkulo handiago batetan, ikastola barnean zuela, gizar-tearena. Umea, zortzi urterarte, zirkulo txiki horren barne bizi da, baina urte hoietatik aurrera zabaldu egiten da, eta zirkulo hori ez da egia; beste zirkulua, nagusia, da egia. Horrela - esaten zuen Mackeyk - zortzi bederatzirez geroztik, haurra eskolako hizkuntzatik gizar-teko hizkuntzara aldatzen da. Memen, beraz, ikastola oso ondo dago, baina konturatu behar gara ez dela aski. Hori guk, salatu egin behar dugu.

P. y H.: Diglosiarekin zerikusirik izango du horrek

- Hori da. Edozein soziolinguistak esan dezake hori dela hain zuzen diglosia: zer 2a euskara? eskolako hizkuntza. Beraz, diglosia hutsa. «Zer da euskara?», ba, «guretzako hizkuntza», eta haurrek eskolatik irten eta nagusien hizkuntza, hizkuntza normala, egin nahi dute.

Lehenengo bota behar den mitoa, zera da, gramatika batez hitzegiten dela hizkuntza bat, hori gezurra da; ez dago baxterre ejemplorik hori baieztatzeko. Eta bigarrena, ikastola ez da aski. Ikastola, ghetto bat da, eta haurrak adina goratuz doazen doazen neurrian, ghetto horretatik ateratzen dira, eta hori ez hemen bakarrik, hori mundu guztian gertatzen da. Haurrek hau ondo dakite: «euskara umeen hizkuntza da». Hori da azken batetan diglosia: hizkuntza bat, soziala izan gabe, puntuala izatea.

P. y H.: Ez duzue uste nazio kontzeptua independentzia eskariak gehiago oinarritzen zirela euskara eta kultur azalpenetan lehen, gaur azalpen horik indartzu doazelarik?

- Bai, badago halako zerbait. Mackey - berriz ere - irlandarra da eta Quebec-en bizi da, beraz bi aldiz jasan du hizkuntz zapalkuntza eta oso sensibilizatuta dago. Hark esan zuen Irlandan independentzia lortuta ere, oraindik bazegoela hizkuntza biltzeko gogoia, baina gerraz geroztik hori pikutara joan dela esaten zuten, burruka hori bukatuta dagoela, Catalunyan ere gauza bera zen, orain berriz, badituzte heuren organismoak, eta Mackeyk esaten zuen bezala, «orain baditugu instituzioak, orain haik errebindikatu dezatela», hau da argumentu nagusia. Horrela dator arazoaren zokoratzea, euskararen arazoa ez da herriaren arazoa, hori instituzioen arazoa da. Jendeak eskuak garbitzen ditu eta

sino meramente puntual, argumentación ésta que se enfrenta abiertamente a la pretensión del principio «primero la independencia, después con una buena gramática se soluciona lo del euskara», abundantemente extendida en ciertos sectores abertales.

Especial hincapié, en este proceso diglósico, merecen los medios de comunicación como la prensa, televisión y radio que lejos de aumentar los espacios en euskara para fomentar su uso e implantación, mantienen porcentajes ridículos, nunca proporcionales, a la audiencia euskaldun que poseen.

El balance de la organización estos siete meses de andadura, muestra diversas actividades entre encerronas, peticiones dirigidas a Ayuntamientos y demás entes administrativos, así como a centros bancarios; actividades que han provocado diversas multas, encarcelamientos y procesamientos, tanto en Euskadi Norte como Euskadi Sur, contra miembros de la organización.

Por otra parte se ha llevado a cabo una labor de recopilación de las distintas medidas contra el euskara tomadas por los distintos organismos oficiales de Euskadi. Entre estas me-

desmobilizazio hori desastre bat bilakatu da.

P. y H.: Konta itzazue, gainerik bada ere, EHEren ekintzak sortu zenetik hona.

- Aurkezpen aurretik pintadak egin ziren bidetako seinaleetan eta halakoetan. Itxialdiak, guk CGVko egoitzean eta Iruñekoak Diputazioan. Orain, Iruñekoak, juizioa dute horregaitik. Hendaikoen ekintza ere hor dago, horrek ere juizioa ekarri du, multak jarri dizkiete eta kartzela ere bai. Hor dago baita Iruñeko manifestazioa, guk bakarrik ez genuen antolatuta, baina gu ere hor izan ginen, gau- eskolak, ikastolak... eta hoiekin batera manifestatuz «euskara nafar hizkuntza» lemapean. Donostiako pleno batetara ere joan ginen eta benetako bilinguismoa eskatzen genuen.

Beste ekintza bat biltokiak sortzea da. Euskara hutsean hitzegingo den tokiak; haietan, «debeakututa» dago erdaraz egitea, Biltokien eginbeharra ez da erdara hitzegitea «debeakutzea», baizik, euskara ikasten ari direnak, kasu batez, kizkuntza lantzeko toki batzuk edukitzea.

Bestalde, bide batez, biltoki horik, giro bat sortzen dute eta hori ere ongarri da. Talde edo biltoki hauk, zenbait jendeak, ghetto bat bezala har ditzazke; horren aurka, hauxe da azpimarratu behar duguna: jendeak euskaraz egiteko aukera bat direla toki hauk.

Bizkaian banketxetarako eskutitzak bidali dira, paperatan euskaraz agertzeko eta bankalangle euskaldunak jartzeko eskatuz.

P. y H.: Eta jasan dituzuen zigorrer gain, zein balantze gin dezakezute ekintzen ondorioez.

- Ba, giro bat sortu da zenbait inguru euskara erabiltzera bultzatuz. Udaleko batzar batetan eta halakoetan, gure presentzia edukiz gero, kontuz ibiltzen dira euskararekin. Zenbait girotan beldurra eta ardura hartzen ari dira euskararen arazoaz, eta hori positiboa da.

P. y H.: Udalak, beraz administrazioa aipatu duzue. Badirudi arlo honetan euskara baloratzen ari direla lanpostuetarako eta eskatuz, egunkarietako iragarkietan behintzat hala agertzen da...

- Honetaz badugu luzaz eta ugari zer esaterik. Zazpi hilabetetako historia honetan gauza bitxiak aurkitu ditugu administrazioko paperartean. Hemen kasu bat edo bi aipatuko ditugu, baina pila bat dugu.

Errenterian kasu batez, udal postu batzuk behar ziren, polizia municipal buruzagi bat, zazpi polizia municipal, peoiak, elektrizistak... Orduan, base batzuk jarri ziren, lan bakoitzari esijitzekoak, baina aparte «méritos preferentes» gisa beste baldintza batzuk jartzen zituzten, puntuazio berdina edukiz gero, meritu batzuk



Txillardegui, Eudika de Miguela eta Jon Tapia, tres portavoces de «Euskal Herrian Euskara».

kontutan hartzeko. Merituak hauk ziren: Euskara jakitea, Errenterian bizitzea, egoera familiar eta soziala. Gidatzeko karneta... halako aldintzak. Gobernariak, konstituzio espainarra hartu eta 3. artikularekin ezeztatu egiten ditu Errenteriar erabakiak. Hori gobernariaren aldetik.

Baina gero beste kasu bat aurkitu genuen. Errenteriar udalak, Beraungo haurtzaindegirako zuzendari bat behar zuten, baina erdaraz idatzita zegoenez, «directora de guardería» jartzen zuen iragarkietan. Oinarrien artean, hauxe esaten zuen «Justificar el dominio del euskara dado el carácter de la plaza a cubrir». Orduan, CGV-k, berriz, Konstituzio espainarra hartuz «conforme a la Constitución española art. 3 eta «los españoles son iguales ante la ley sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, etc...»

Honi buruz zer esan: a) CGVn gehien-go Konstituzioaren aurka agertu zen bere egunean, eta orain, gobernari zibibilaren maila berdinean, Konstituzioko artikulua batez armatzen da euskararen kontra.

b) Bestalde, neurri hau ez da legearen zaintzeko, udaleko idazkian argi esaten baitzen «directora de guardería» behar zela, eta hau, noski, sexu diskriminazio bat da, legearen kontra beraz.

c) CGVren hirugarren arrazoia, termino hauetan gainera «a mayor abundamiento», udalaren erabakia guztiz hondatu eta zapuzteko, hau da «el decreto de octubre del 73 (Francoren garaia!!!) Art. 43 establece unos requisitos previos para acceder a la Administración local y estos

requisitos se reducen a condiciones mínimas para el normal cumplimiento de cualquier trabajo». Beraz, jendearentzat, haurtzaindegi hortako zuzendariak haurrak ulertzea ez omen da lanerako baldintza beharrezko... horra haur euskaldunak joanarren.

Eta arma hauekin, CGV-k ezeztatu egiten du udalaren erabakia.

Hondarribian ere egon da halako kasu bat. Han administratibo bat behar zen, bai Konstituzioa eta bai Francoren garaiko legeez 1968 eta 1973.ekoek baliatuz, nork eta CGV-k, erakunde demokratiko eta euskalduna -omen- batek, atzera bota zituen euskararen aldeko eskari batzuk...

Gai hauetaz zera esan beharra dago, CGVko alderdi «abertzaleak» beldur handiz ibili zirela informazio hau azken auteskude aurretik irtenaz botuak galduko zituztelakoan.

P. y H.: Eta guzti honen aurka manifestaldia antolatu duzue...

- Bai, datorren larunbatean, apirilak 19, arratsaldeko seiretan, Donostiako bulebarran hasita kalez-kale izango da manifestapen bat euskararen alde. Manifestapen hau Gipuzkoako Euskal Herrian Euskaraz erakundekook antolatu dugu, baina Euskadiko euskaltzale guztiei dei egiten diegu, euskararen egoera eta bereziki gorago aipatutako portaerak salatzeko.

Zertan esan ere ez zenbat eta jende gehiago etorri, euskararendako eta euskaltzaleondako hobe. Donostian itxaroten ditugu beraz euskaltzale guztiak.

didas destacan dos suspensiones, una por parte del gobernador y otra por el CGV, de decisiones municipales adoptadas en Rentería en el sentido de exigir el euskara para el acceso a determinados puestos municipales tales como policía municipal, administrativos, etc...

De estas suspensiones destacan las del CGV por tratarse de tal organismo, autodenominado vasco, y por argumentar artículos procedentes de la Constitución española, rechazada por la mayoría de las fuerzas componentes del CGV, y artículos de la legislación franquista del año 73. ■